

Eriaren izena: \_\_\_\_\_

Azterketaren eguna: \_\_\_\_\_

Iraupena: \_\_\_\_\_

Testaren kudeatzailea: \_\_\_\_\_

I. Duguine, N. Ezzedine & B. Köpke

# BILINGUAL APHASIA SCREENING TEST (BASQUE VERSION)

## AFASIKO ELEBIDUNEN

## DETEKZIO-AZTERKETA EUSKARAZ

### Testaren kudeatzaileari zuzendutako oharra

Idatzizko ekoizpena euskara batuaren arauak segitzeko xedea badu ere, euskalkien aniztasuna ahozko mintzaitan ez da ukatzen ahal, bereziki Ipar Euskal Herriko hiztunen kasuan. Ondorioz, eriak mintzatzen duen euskara mota kontuan hartu behar da, eta, beharrez, azterketaren euskarria molda daiteke eriak erabiltzen duen euskalkiari egokitzuz. Behe-nafatar batentzat adibidez, ondoko formak lehenetsiko dira: “*nun, nungo, nihun, zira, dautzut, dautazu, hortan, erraitea, oto eta abar*”, “*non, nongo, nehon, zara, dizut, didazu, horretan, auto, erratea*” hitz estandarizatuen orde. Helburua delarik erriaren hizkuntza-ingurumenari ahal bezainbat hurbil egotea.

### Note à l’attention de l’administrateur du test

Si la production textuelle tend à suivre les règles du basque standard, on ne peut ignorer la diversité dialectale des parlers oraux, notamment dans le cas des locuteurs du Pays Basque de France. Par conséquent, il convient de prendre en compte la variété dialectale utilisée par le patient bascoophone, et si besoin est, d’adapter le test aux particularités de son dialecte. S’il s’agit d’un patient d’origine bas-navarraise, on privilégiera par exemple, les formes “*nun, nungo, nihun, zira, dautzut, dautazu, hortan, erraitea, oto, etc.*” aux mots du basque standard “*non, nongo, nehon, zara, dizut, didazu, horretan, auto, erratea*”. L’objectif étant de rester le plus proche possible de l’environnement linguistique du patient.

Based on Bilingual Aphasia Test by Michel Paradis <http://mcgill.ca/linguistics/research/bat/>

## PARTE A. ELEBITASUNAREN HISTORIAO

Ondoko galderak irakurri behar dira aurkeztuak diren bezala. Eria ez bada gai eskatua den informazioaren emateko, galderak egiten ahal zaizkio familiako beste norbaiti.

Galdera hetsien kasuan (hots, erantzuna *bai* edo *ez* igurikatzen delarik), “+” ikurra inguratu behar da baiezko erantzunetan, eta “-” ezezkoetan.

Aztertzaileari zuzenduak diren aginduak, \*\*\* ikurraz seinlatuak dira.

•• *Hemendik aitzina has zaitez ozenki irakurtzen.*

1	Noiz sortua zara?			
2	Non sortua zara?			
3	Haurra zinelarik, zoin zen etxen gehienik erabiltzen zenuen mintzaira?			
4	Haurra zinelarik, beste mintzaira batean ari zinen? Zoin zen?	+	-	0
5	Zoin zen zure aitaren mintzaira? *** Erantzuna “Euskara” baldin bada, galdegin nongoa den.			
6	Beste mintzairarik bazekien zure aitak ? Zoin?	+	-	0
7	Zoin zen zure amaren mintzaira? *** Erantzuna “Euskara” baldin bada, galdegin nongoa den.			
8	Beste mintzairarik bazekien zure amak ? Zein?	+	-	0
9	Zonbat urtez ibili zara eskolan?			
10	Eskolara abiatu zarelarik, zoin zen eskolako mintzaira?			
11	Ondotik ibili ote zara eskola batean non beste mintzaira bat erabiltzen baitzen?	+	-	0

•• *11. galderaren erantzuna « EZ » baldin bada, zuzenki 15. galderara pasa.*

12	Zoin zen eskola horretako mintzaira?			
13	Noiz abiatu zara mintzaira berri horrekin? Zoin klasetan zinen?			
14	Ondotik, ibili ote zara eskola batean non beste mintzaira bat erabiltzen baitzen?	+	-	0
	Zoin (mintzaira)?			
15	Eskolatik kanpo, beste mintzairarik ikasi ote duzu?	+	-	0
	Zoin?			
16	Zoin da zure lanbidea edo ofizioa?			
17	Eri izan aitzin, zoin ziren mintzatzen zenituen hizkuntzak?			
18	Non bizi zara?			
19	Noizdanik bizi zara herri horretan?			

## PARTE B

### Euskararen ikasteko baldintzak eta erabilpena

••• *Ondoko manua eriarri eman-eta, segidan heldu diren galderak eginen dizkiozu.*


**Erabiltzen duzun euskarari buruz galdera batzuk eginen dizkizut. Ados?**

1	Beste herri euskaldun batean egona ote zara?	+	-	0
---	--	---	---	---

••• *Erantzuna « EZ » baldin bada, zuzenki 4. galderara pasa.*

2	Zoin herritan?	
3	Zonbat denbora egon zara leku hartan?	

••• *Eskala agertzen den erantzunetan, eriarri eskala-eredua erakutsi iezaiozu (estimulu liburuxkaren 2. orrialdean dena), eta ondotik, kurutze batez marka ezazu non kokatzen den.*

4	Eri izan aitzin, nola mintzatzen zinen euskaraz? (1) Nekez ... (5) Aise	<div style="text-align: center;">0</div> <div style="display: flex; justify-content: space-around; margin-top: 5px;"> <span>1</span><span>2</span><span>3</span><span>4</span><span>5</span> </div> 		
5	Zer adin zenuen euskara ikasten hasi zarelarik?			
6	Eri izan aitzin, euskaraz mintzatzen zinen etxen?	+	-	0
7	Eri izan aitzin, euskaraz mintzatzen zinen lanean?	+	-	0
8	Eri izan aitzin, euskaraz mintzatzen zinen adiskideekin?	+	-	0
9	Eri izan aitzin, euskaraz mintzatzen zinen ...	0		
		1	Egun guziz	
		2	Aste guziz	
		3	Hilabete guziz	
		4	Urte guziz	
	5	Urtean aldi bat baino gutiago		
10	Euskaraz irakurtzen ikasi duzu?	+	-	0

••• *Erantzuna « EZ » baldin bada, zuzenki 18. galderara pasa.*

11	Zer adin zenuen euskaraz irakurtzen ikasi duzularik ?				
12	Eri izan aitzin, euskaraz irakurtzen zenuen... (1) Nekez ... (5) Aise	<p style="text-align: center;">0</p> <p style="text-align: center;">1    2    3    4    5</p>			
13	Eri izan aitzin, euskaraz irakurtzen zenuen...	0			
		1    Egun guziz			
		2    Aste guziz			
		3    Hilabete guziz			
		4    Urte guziz			
5    Urtean aldi bat baino gutiago					
14	Euskaraz idazten ikasi ote duzu?	<table style="width: 100%; text-align: center;"> <tr> <td style="width: 33%;">+</td> <td style="width: 33%;">-</td> <td style="width: 33%;">0</td> </tr> </table>	+	-	0
+	-	0			

••• Erantzuna « EZ » baldin bada, zuzenki 18. galderara pasa.

15	Zer adin zenuen euskaraz idazten ikasi duzularik ?	
16	Eri izan aitzin, euskaraz idazten zenuen ...	<p style="text-align: center;">1    2    3    4    5</p>
17	Eri izan aitzin, euskaraz idazten zenuen ...	0
		1    Egun guziz
		2    Aste guziz
		3    Hilabete guziz
		4    Urte guziz
5    Urtean aldi bat baino gutiago		

## HIZKETA LAXOA

••• Graba ezazu BOST MINUTU-z eriaren hizketa laxoa. Atal honen helburua da jendearen elea biltzea molde naturalean. Elkarrizketaren eramateko, aztertzaileak artetan galderak egin ditzake, gai berezi batzuk aipatuz:

- a) eritasuna,
- b) alor profesionala (lanbidea edo ofizioa),
- c) eriak atzerrian ukan dituen esperientziak,
- d) familia, eta abar.

••• Eria mintzatzetik gelditzen delarik, grabagailua motz ezazu eta ondoko sailarentzat (18 → 23), ebalua ezazu eriaren maila 1 eta 5 zenbakien arteko eskala erabiliz.

18	Kantitatea (1) Deus ez ... (5) Normala	1 2 3 4 5 └───┬───┬───┬───┬───┘
19	Jariotasuna (1) Ahula ... (5) Normala	1 2 3 4 5 └───┬───┬───┬───┬───┘
20	Ahoskera (1) Zaila ... (5) Normala	1 2 3 4 5 └───┬───┬───┬───┬───┘
21	Sintaxia (1) Agramatikoa ... (5) Normala	1 2 3 4 5 └───┬───┬───┬───┬───┘
22	Hiztegia (1) Pobrea ... (5) Normala	1 2 3 4 5 └───┬───┬───┬───┬───┘
23	Maileguak edo kodigo aldaketa ( <i>code-switching</i> ) (1) Biziki usu ... (5) Sekular ez	1 2 3 4 5 └───┬───┬───┬───┬───┘

## IZENDAPENA

••• *Ariketa honetan, eriak bere aitzinean dituen objektuak bederazka izendatu behar ditu. Hasteko, objektuak mahaiaren gainean ezarri behar dira eriak ongi ikus ditzan.*

••• *Eriaren erantzunak ebaluatzeko, “+”, “-” eta “0” ikurrak baliatuko dira. Erantzun zuzena baldin bada, “+” ingura ezazu; gaizki bada, “-” eta erantzunik ez badu ematen, “0” ingura.*

**Hemendik aitzina has zaitez ozenki irakurtzen.**

**Objektu batzuk bederazka erakutsiko dizkizut. Bakoitzaren izena emanen didazu. Ados?**

24	Liburua	+	-	0
25	Botoi(n)a	+	-	0
26	Gakoa / Giltza	+	-	0
27	(H)aizturak / (H)aixturak	+	-	0
28	Eraztuna	+	-	0
29	Basoa	+	-	0

## SEINALATZEA

••• *Objektuak mahaiaren gainean ezarri behar dira eriak aise hunki ditzan, eta ondoko ordena errespetatuz (ezkerretik eskuinera): botoia, eskularria, eraztuna, basoa eta supiztekoak.*

••• *Hemendik aitzina has zaitez ozenki irakurtzen.*

30	Eraztuna hunki ezazu	+	-	0
31	Botoia hunki ezazu	+	-	0
32	Supiztekoak hunki izkizu	+	-	0
33	Eskularrua hunki ezazu	+	-	0
34	Basoa hunki ezazu	+	-	0

## AGINDU SINPLEAK ETA ERDI-KONPLEXUAK

••• *Ondoko manuak erriari irakurriko dizkiozu. Mahaian den materiala erabiliko da: baso bat, luma bat, eraztun bat, gako bat.*

••• *Aitzineko ariketetan bezala notatuko dira erriaren ekintzak (“+”, “-” edo “0” hautatuz).*

••• *Hemendik aitzina has zaitez ozenki irakurtzen.*

**Gauza batzuen egitea eskatuko dizut. Ados?**

35	Ahoa idek ezazu	+	-	0
36	Eskua altxa ezazu	+	-	0
37	Mihia atera ezazu	+	-	0
38	Basoa ezar ezazu lumaren ondoan	+	-	0
39	Luma ezar ezazu eraztunaren aitzinean	+	-	0
40	Gakoa ezar ezazu basoan	+	-	0

## AGINDU KONPLEXUAK

••• *Manu osoa (erran nahi da, hiru azpi-manuak) hats batez irakurriko diozu erriari. Eriak ekintzak egin beharko ditu, mahaian diren hiru objektuak erabiliz. Objektu hauek erriaren menera ekarriak izan behar dira.*

*Materiala: neurri ezberdinetako hiru paper mutur (ttipi bat, bitarteko bat eta handi bat).*

*Manua osoki irakurri behar da, erranaldi bakar batez.*

*“+” ingura ezazu, erantzuna zuzena baldin bada (hots, eriak ekintza guziak egiten baditu manatu bezala).*

*“3” ingura ezazu, erantzuna zuzena baldin bada baina hiru ekintzak ordena ez egokian egin baditu.*

*“2” ingura ezazu, hiruetarik bi ekintzak bakarrik ongi egin baditu.*

••• *Hemendik aitzina has zaitez ozenki irakurtzen.*

41	Hona hemen hiru paper mutur. Emaidazu paper ttipia, bitartekoa zure belaunetan ezar ezazu eta handia bota.	+	3	2	1	0
----	---	---	---	---	---	---

## AHO-ENTZUMENEZKO BEREIZKETA

•• Atal honetan, eriak hitz bat entzunen du eta hitzari doakion irudia erakutsi beharko du. Irudi bakoitza goiko aldean eta eskuinean den zenbaki batez seinatua da. Hitz bakoitzarentzat, eriak hautatu duen irudiari doakion zenbakia ingura ezazu (hauta 1 eta 4 zenbakien artean, edo X). Eriak ez badu irudirik hunkitzen ez eta ere X-a, "0" ingura ezazu. Notazio lanaren errazteko, igurikatua den erantzunaren laukia beltzuritua da. Eriari erakutsiezaiozu estimuluen liburuxkan den "Aho-entzumenezko bereizketa" atala (3. orr.).

•• Hemendik aitzina has zaitez ozenki irakurtzen.

**Hitz bat entzunen duzu. Ondotik hitz horri doakion irudia hunkituko duzu. Aldiz, hitz horri lotua den irudirik ez bada, « X »-a hunkituko duzu. Adibidez, ARBOLA hitza erraten badut, zuk erakutsi beharko didazu irudia zoin den. XORIA erraten badut, eta ez baldin bada nehon agertzen, «X»-a erakutsiko duzu. Ados?**

42	izarra	X	1	2	0
			3	4	
43	lepoa	X	1	2	0
			3	4	
44	pila	X	1	2	0
			3	4	
45	ahatea	X	1	2	0
			3	4	
46	idia	X	1	2	0
			3	4	
47	sotoa	X	1	2	0
			3	4	
48	barea	X	1	2	0
			3	4	

## EGITURA SINTAKTIKOEN ULERMENA

•• Ariketa honetan, eriak, entzun duen erranaldia ongi ulertu duela frogatzeko, irudi egokia hunkitu beharko du. Erranaldiak doinu normalean irakurriko dizkiozu. Erranaldi bakoitzarentzat, eriak hautatu duen irudiari doakion zenbakia inguratuko duzu (hauta ezazu 1



eta 4 zenbakien artean, edo  $X$  ikurra). Erranaldia irakurri-eta, eriak ez badu erantzunik ematen BOST SEGUNDAren buruan, “0” ingura ezazu. Eriari erakuts iezaiozu estimuluen liburuxkan den “Egitura sintaktikoen ulermena” atala (21. orr.).

••• Hemendik aitzina has zaitetz ozenki irakurtzen.

**Erranaldi bat entzunen duzu eta horri doakion irudia hunkituko duzu. Adibidez, MUTIKOA JARRIA DA erraten badut, erakutsiko didazu irudia non ikusten den mutiko bat jarririk. Ados?**

••• 24. orrialdea.

49	Mutikoak neska hunkitzen du.	1	2	0
		3	4	
50	Hunkitzen dute.	1	2	0
		3	4	

••• 25. orrialdea.

51	Neska pusatzen du mutikoak.	1	2	0
		3	4	
52	Neskak pusatzen du mutikoa.	1	2	0
		3	4	

••• 26. orrialdea.

53	Otoak du kamioia tiratzen.	1	0
		2	
		3	
		4	

••• 27. orrialdea.

54	Kamioiak ez du otoa tiratzen.	1	0
		2	
55	Otoak ez du kamioia tiratzen.	1	0
		2	

••• 28. orrialdea.

56	Erakuts iezaiozu iturriko ura.	+	-	0
----	--------------------------------	---	---	---

••• 29. orrialdea.

57	Erakuts iezadazu ostatuaren nagusia.	+	-	0
----	--------------------------------------	---	---	---

••• 30. orrialdea.

58	Erakuts iezadazu haurraren ama.	+	-	0
----	---------------------------------	---	---	---

## HITZ ETA LOGATOMOEN ERREPIKAPENA

••• *Estimulu bakoitzarentzat, hitza irakur ezazu eta beha egon zaitez eriak errepika dezan. Eriak hitzez hitz errepikatu behar du entzun duena. Erantzuna zuzena baldin bada, “+” ingura ezazu (azentu edo euskalkien ezberdintasunak kontuan hartuz), gaizki bada aldiz, “-” ingura ezazu. Erantzunik ez badu ematen BOST SEGUNDA-ren buruan, “0” ingura ezazu.*

••••• HEMENDIK AITZINA MAGNETOFONOA PITZ EZAZU •••••

••• *Hemendik aitzina has zaitez ozenki irakurtzen.*

**Galdeginen dizut hitz batzuen errepikatzea. Abisatzen zaitut, hitz horien artean, batzuk euskal hitzak direla eta beste batzuk, aldiz, ez direla egiazko hitzak. Zentzurik ez dute. Hitza berehala errepika ezazu ene ondotik. Ados?**

59	Kea		+	-	0
60	Lana		+	-	0
61	Txona		+	-	0
62	Ga		+	-	0
63	Hortza		+	-	0
64	Atsoa		+	-	0
65	Aika		+	-	0
66	Moria		+	-	0
67	Papera		+	-	0

68	Iturria		+	-	0
69	Azeria		+	-	0
70	Ataba		+	-	0

## ESALDI ERREPIKAPENA

••• *Ondoko manua irakur ezazu.*

**Orain erranaldi batzuk entzunen dituzu. Ene ondotik errepika izkizu. Ados?**

71	Mutikoak neska pusatzen du.		+	-	0
72	Neska hunkitzen du.		+	-	0
73	Kamioiak ez du otoa tiratzen.		+	-	0

## ZERRENDAK

••• *Atal honetan, zerrenda bat gogoz ematea galdegiten zaio eritari. Lerroa osoa baldin bada eta ordenean emana, “+” ingura ezazu.*

••• *Eriak hutsak egiten baditu edo elementuak nahasten, “-” ingura ezazu. Erantzunik ez badu ematen, eria laguntzen ahal duzu delako zerrenda hasiz. Horren ondotik, ez badu deusik ardiesten, “0” ingura ezazu.*

••• *Hemendik aitzina has zaitetz ozenki irakurtzen.*

74	Zoin dira asteko egunak?		+	-	0
75	Konda ezazu 1etik 15 arte.		+	-	0

## JARIOTASUNA

••• *Atal honetan, alor bateko hitzak adierazteko gaitasuna ebaluatzen da. MINUTU BAT-**ez** eriak ekoizten ahal dituen hitz ezberdinen kopurua biltzea garrantzitsuena da hemen.*

••• Hemendik aitzina has zaitez ozenki irakurtzen.

**Emanen dizkidazu ezagutzen dituzun ANIMALEen izenak, burura heldu zaizkizunak. Minutu bat baduzu. Ados?**

0 – 30 segunda	30 – 60 segunda

76	Hitz guziak animale izenak dira eta euskarazkoak.	+	-	0
77	Hitz kopuru onargarria			

## SEMANTIKOKI KONTRAKOAK

••• Atal honetan, eriak entzuten duen hitzaren kontrakoa eman ez erantzun behar du. Ekoiztua den hitzak kontrako zentzua baldin badu, erantzuna zuzena dela kontsideratzen da. Notazio lanaren errazteko, igurikatua den erantzunaren laukia beltzuritua da.

••• Hemendik aitzina has zaitez ozenki irakurtzen.

**Hitz bat emanen dizut. Zuk, kontrako hitza emanen didazu. Adibidez, « ONA » erraten badut, zuk « TXARRA » erranen didazu. Ados?**

78	egia	+ gezurra	Edo	1	-	0
79	pizua	+ arina	Edo	1	-	0
80	lodia	+ mehea	Edo	1	-	0

81	hetsi	+ ideki	Edo	1	-	0
82	jeiki	+ etzan(ik)	Edo	1	-	0

## IRAKURKETA OZENA

••• *Ondoko bi ariketetan, eriak estimulua ozenki irakurri behar du (ikus 31-33 orrialdeak estimuluen liburuxkan). Estimulu bakoitzarentzat, ongi irakurria baldin bada, “+” ingura ezazu, gaizki bada “-” eta eria isilik egoten bada, “0” ingura ezazu.*

••• *Hemendik aitzina has zaitez ozenki irakurtzen.*

**Hitz batzuk erakutsiko dizkizut. Aldi oro, hitz bakoitza ozenki irakurriko duzu. Ados?**

83	pila			+	-	0
84	barea			+	-	0
85	ibarra			+	-	0
86	lerroa			+	-	0
87	ihia			+	-	0

••• *Ondoko manua irakur ezazu.*

**Orain erranaldi batzuk erakutsiko dizkizut eta goraki irakurri beharko dituzu. Ados?**

88	Mutikoak neska hunkitzen du.			+	-	0
89	Mutikoa pusatzen du.			+	-	0
90	Kamioiak du otoa tiratzen.			+	-	0
91	Neskak ez du mutikoa hunkitzen.			+	-	0

••••• MAGNETOFONOA GELDI •••••

## KOPIATZEA

••• *Eriari orrialde bat emanen diozu eta hemendik aitzina has zaitez ozenki irakurtzen.*

**Bi hitz idatziz emanen dizkizut eta zuk, kopiatuko dituzu. Hor duzu izkiriatzekoa eta orrialde horretan idatziko dituzu. Ados?**

92	lerroa		+	-	0
93	sarea		+	-	0

## DIKTAKETA

••• *Ondoko manua irakur ezazu.*

**Orain bi hitz irakurriko dizkizut. Idatziko dituzu. Ados?**

94	sotoa		+	-	0
95	izarra		+	-	0

••• *Ariketa honetan, eriak erranaldi bat idatzi beharko du. Ekoizpenaren notatzeko, ondoko irizpideak segituko dituzu:*

- *Erranaldian hutsik ez bada edo hitz bat bakarrik gaizki: "4" ingura ezazu.*
- *Erranaldian bizpahiru huts baldin badira, "3" ingura ezazu.*
- *Erranaldian 4 huts edo gehiago baldin badira, "2" ingura ezazu.*
- *Eriaren ekoizpena ez bada egokia edo ez ulergarria, "1" ingura ezazu.*
- *Eriak ez badu deusik idazten, "0" ingura ezazu.*

••• *Ondoko manua irakur ezazu.*

**Orain erranaldi bat irakurriko dizut. Idatz ezazu. Ados?**

96	Neskak ez du otoa pusatzen.		4	3	2	1
----	-----------------------------	--	---	---	---	---

## HITZEN IRAKURKETA ISILA (ULERMENA)

••• *Atal honetan, hitz bakoitza entzun-eta, eriak hitz horri doakion irudia erakutsi behar du. Hautatu duen irudiaren zenbakia ingura ezazu.*

••• *Hemendik aitzina has zaitez ozenki irakurtzen.*

**Orain hitz batzuk erakutsiko dizkizut. Hitza zure baitan irakurtzen duzu eta ondotik, hitz horri doakion irudia hunkituko duzu. Ados?**

97	barea	1	2	0
		3	4	
98	izarra	1	2	0
		3	4	
99	sotoa	1	2	0
		3	4	
100	idia	1	2	0
		3	4	

## **ESALDIEN IRAKURKETA ISILA (ULERMENA)**

••• *Ondoko manuak eriarri irakur izkiozu, eta erakuts izkiozu erranaldiak eta irudiak, estimuluen liburuxkan oinarrituz (45. orr.).*

**Orain erranaldi batzuk erakutsiko dizkizut. Erranaldia zure baitan irakurtzen duzu eta ondotik, erranaldi horri doakion irudia hunkituko duzu. Ados?**

101	Mutikoak neska hunkitzen du.	1	2	0
		3	4	
102	Mutikoak ez du neska pusatzen.	1	2	0
103	Neska hunkitzen du.	1	2	0
		3	4	
104	Neska mutikoak pusatzen du.	1	2	0
		3	4	